

LUA

Legorretako Udal Aldizkaria

2017ko Urtarrila

15.

zenbakia

2 Aurrez Aurre
Felixiano eta Patxi Ezkiaga

4 Udal arkitektoa
Gizarte zerbitzuen aldaketa

5 Plan hidrologikoa

6 Herrigintza
eta hirigintza lantaldeak

2016 Argazkitan

7 Konposta ixteko etxola

8 Ontziratu Zaitetz

9 Galdeketa

10 Errezeta

11 Agenda



AURREZ AURRE



Elkarrizketatzailea:
**FELIXIANO
EZKIAGA
LASA**

Elkarrizketatua:

**PATXI
EZKIAGA**

Patxi Ezkiaga Lasa (Legorreta, 1943) Euskal Herriko idazle ospetsuenetakoa da, poemaren alorrean batez ere.

Sari askoren irabazlea da (Irun Hiria, Lizardi, Azkue...); bere 'Zauriaren Salmoak' poema liburuak Espainiako Kritikaren Saria irabazi zuen. Euskal Herriko Unibertsitateak haren obra argitaratu zuen 'Haize Hurbila - Viento Cercano' liburuarekin. Nobelagintzan jarduna ere bada; segur aski, 'Munduaren amaierako kalea' da obra garrantzitsuena.

Bere azken poema liburuak, 'Urrutiko lur hauek - Esas tierras lejanas', herriari oparitu zion, eta udalak argitaratu egin du.

Orain, eragileekin batera, liburu aurkezpen eta omenaldia antolatzeko lanean dabil, herriak ere merezitako eskertza egin diezaion. Anaia Felixianok elkarrizketatu du.

Esaiguk zerbait hire ikasle urteez.

18 urte bete arte, hemen jardun nian nire ikasketekin. Orduan, beka bat bitarteko, Ingalaterrara joateko proposamena etorri zitzaidan, eta, etxekoekin kontsultatu eta gero, onartu egin nian. Banekian abentura baten antzekoa izango zela, baina, betidanik nahiko abentura zalea izan naizenez, aukera berrien lilurak nire alde jokatu zian. Baina ez nintzen joan erabat biluzik. Gurasoek etxeko bi altxor eman zizkidaten, bidai-de izan nitzan: Domingo Agirreren 'Garoa' eta Lizardiren 'Bihotz begietan'. Haiek izan nitian ordu luzeetarako lagunak.



Iurgi Ezklaga

Baina hire gutunetan ikusten zuan gorriak pasatzen ari hintzela. Eta, bestalde, hire euskara freskotasuna galtzen ari zela.

Hala duk. Eta Dogmersfield College-n nire literatura ikasketak martxa ezin hobean zihoazen heinean ari zuan nire ama hizkuntza aldatzen: "akademikoagoa", "ilustratuagoa" bai, baina herdoilez betea.

Gogoan diat "ingelestuta" etorri hintzela, bihotza han utzita. Hire Manchester United... errugbia...

Baina literaturaren alorrean batik bat. Shakespeare, John Donne, Thomas Hardy, TS Eliot, Golding, Ted Hughes... eta ingelesera itzulita irakurri nizkian literatura unibertsaleko klasikoak... Anna Karenina...

Eta garai hartan hasi hintzen euskarazko lehen poemak idazten. 'Piku' izenpetzen hituan, oker ez banago.

Bai, 'Piku'. Nola hala nire lurrarekiko atxikimendua adierazi nahi nian. Gero, Deustuko Unibertsitatean historia ikasketak burutzearekin batera 'Linden' ere erabili nian, 'ezkia' ingelese.

Garai hartan hasi hintzen hire irakasle lanetan...

Hala duk: 13 urtez jardun nian Bilbon. Donostian, berriz, 40 urte pasatxo eman ditiat, harik eta, gaixotasunak jota, utzi behar izan nuen arte. Triste, betiere irakaskuntza bokazio gisa ikusi dudalako.

Ordukoa izan huan 'Beldur naiz', Felipe Arresebeitia saria...

Gero etorriko zirenen aitzindari: Azkue Saria, Eusko Jaur-laritzarena, Irun hiria, bai poesiaren bai eleberriaren esparruan... Espainiako Kritikaren Saria, bitan hori ere. Baina utz dezagun bere horretan.

Ez azpian dagoen indar eragileaz hitz egin gabe.

Lurra, zauritutako giza bihotzean datzan indarkeria pairatzen duen gure lurra, zapaldua eta suntsitua, ahaztuta gu geu ere lur garela.

Serio jartzen ari gaituk. Eta hurbilagora jotzen badiagu? Hasi!

Egunkari bat...

'The Times', eta 'Berria'.

Futbol talde bat.

Athletic!

Zelai bat?

Bi, Legorretako alkatea eta San Mamés.

Txirrindularitzan?

Marino... eta Eddy Mercks.

Hi, honek errima kutsua zeukak.

Oraindik Pirinioak, Alpeak esperantza gisa ditudalako amets.



UDAL ARKITEKTOA IZANGO DUGU 2017tik AURRERA

Orain arte, udaleko arkitektoa ez da izan udal langilea, lantaldekoa. Horrek arazoak sortzen zituen eraginkortasun aldetik, astean behin bakarrik etortzen zelako udaletxera, eta ekonomikoki ere garestia zen. Horregatik, arkitekto lanpostu bat sortzea erabaki zuen udalak, eta prozesua aurrera doa. Lanpostu hori Itsasondoko Udalarekin batera sortu du, Legorretarako gehiegi delako %100eko postua, eta horregatik egin da bi udalen artean.

Deialdia egin zenean, 62 eskari iritsi ziren, eta, eskari horiek aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, udaberrian egingo dira azterketak. Epaimahaia udaletako, diputazioko eta IVAPeko teknikariek osatuko dute, eta IVAPen laguntza izango dute zuzenketa lanak egiteko. Prozesua martxa onean badoa, espero da udarako izatea udal arkitektoa lanean.

Hasta ahora, el arquitecto del ayuntamiento no era un trabajador de la plantilla municipal. Visitaba una vez a la semana el ayuntamiento y esto afectaba a la eficiencia; además, resultaba un servicio bastante caro. Por todo esto, el ayuntamiento ofertó el puesto de arquitecto junto al ayuntamiento de Itsasondo.

El proceso está en marcha y, si no hay ningún imprevisto, se espera que el nuevo arquitecto comience a trabajar este verano.

ALDAKETAK GIZARTE ZERBITZUETAN

Hiru urtez eszedentzian egon ondoren, euren postuetara itzul dira bai gizarte langilea, Itsaso Urretagoiena, eta bai laguntzailea ere, Elena Ibañez. Jendearen arretarako, honako ordutegi hau izango dute: gizarte langileak, astelehena eta osteguna; eta laguntzaileak, asteartea eta osteguna. Horrez gain, jakina, malguak izango dira, eta ateak zabalik izango dituzte gainerako egunetan ere.

Después de tres años de excedencia, tanto la trabajadora social, Itsaso Urretagoiena, como su ayudante, Elena Ibañez, han vuelto a sus puestos de trabajo. La asistente social, estará los lunes y los jueves, y la ayudante, el martes y el jueves. Estos horarios serán flexibles.



ALDAKETAK IZAN DIRA KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOAN

Cambios en el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del este del Cantábrico

Según el Real Decreto 1/2016 aprobado el 8 de enero, se recogen los siguientes cambios aprobados para los siguientes años en torno al Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del este del Cantábrico.

Se dividen los pueblos en terrenos; en el caso de Legorreta, y en cuanto a urbanismo se refiere, prevalecen los siguientes:


1.- Zona de flujo preferente. No se podrá edificar en esa zona.

2.- Cota alcanzable por la avenida de periodo de retorno de 500 años. En esa zona no se podrá dar autorización en los siguientes casos:

- Nuevos usos residenciales que se dispongan a una cota alcanzable por la avenida de periodo de retorno de 500 años.
- Garajes subterráneos y sótanos, salvo que se garantice la estanqueidad del recinto para la avenida de 500 años de periodo de retorno y dispongan de respiraderos y vías de evacuación por encima de la cota de dicha avenida.
- Las acampadas en ningún caso.
- Las infraestructuras públicas esenciales en las que deba asegurarse su accesibilidad en situación de emergencia por graves inundaciones, tales como centros escolares o sanitarios, residencias geriátricas o de personas con discapacidad, parques de bomberos, instalaciones de los servicios de Protección Civil.
- Rellenos que modifiquen la rasante actual del terreno y supongan una reducción significativa de la capacidad de desagüe.
- Acopios de materiales o residuos de todo tipo.

Después de recibir la notificación de la siguiente norma el ayuntamiento pidió un segundo informe, con la esperanza de mejorar el cálculo recogido en él. Pero no se mejoró la previsión de la agencia URA.

Viendo las restricciones que se recogen en la norma, se han realizado multitud de reuniones, pero no se ha conseguido ninguna mejora.



- Lehen eremua (gorria)
Zona de flujo preferente (rojo)
- Bigarren eremua (laranja)
Cota alcanzable por la avenida de periodo de retorno de 500 años (naranja)

1/2016 errege dekretuaren bitartez onartu zen datozen urteetarako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa. Hain zuzen, 2016ko urtarrilaren 8an onartu zen, eta honako hau dio:

Herriak eremuka banatzen ditu, eta, Legorretaren kasuan, hirigintza aldetik bi eremu dute eragin garrantzitsua:

- Lehen eremua: lehentasuneko isuria. Eremu horretan ezingo da ezer eraiki.
- Bigarren eremua: garaiera irisgarria 500 urteko itzulera aldi. Eremu horretan ezingo da baimenik eman kasu hauetarako:
 - 500 urteko kotatik behera ezingo da etxebizitza erabilerarik eman.
 - Garajeak eta sotoak ezingo dira eraiki.
 - Ezingo da kanpatu.
 - Ezingo da eraiki behar-beharrezko eraikin publikorik: eskolak, ospitaleak, zahar etxeak, suhiltzaile etxeak, babes zibileko instalazioak.

- Lurraren maila aldatuko duen betegarri-rik ezingo da bota, ura atera-tzeko ahalmena asko murrizten den kasuetan.
- Ezingo da hondakin eta materialik pila-tu.

Araudi horren berri izan ondoren, Legorretako Udala lanean aritu da URA Uraren Euskal Agentziarekin; izan ere, URAK eginiko kalkulueta oinarritu da gobernua araudia egiteko.

Kalkulu horiek egiteko, dimentsio bakarreko sistema erabili zuten, eta udalak bigarren informea ere eskatu zuen, kalkulu hori hobetzeko esperantzaz. DHI Ingeniaritza Hidraulikoa taldeari eskatu zion, haiek bi dimentsioko sistema erabiltzen dutelako kalkuluak egiteko, baina ez zuen hobetu URA agentziaren aurreikuspena.

Bilera asko izan dira, araudia hain zorrotza izanik buru-belarri saiatu garelako Legorretak ahalik eta kalte txikiena izan zezan, baina ez da izan hobetzeko aukerarik.

HERRIGINTZA ETA HIRIGINTZA LANTALDEAK

2017. URTEKO PLANGINTZA

- 
1. ETXE HUTSAK
 2. TRAFIKOA
 3. HERRI BIDEAK

2016 bukaeran, bi lantaldeak batzeko erabakia hartu zen. Izan ere, bi lantaldeetako gai asko gai bateratuak ziren, eta jende bera zebilen lanean bietan. Bateratze horren helburua, horrenbestez, eraginkorragoa izatea eta denborari etekin handiagoa ateratzea izango da.

Aurrera begirako lan arloa ere zehaztu zen abenduko bilera hartan, eta hiru gai nagusi jorratuko dira 2017an: Etxe hutsak, trafikoa eta herri bideak. Taldeko zinegotzi eta kideak ez dira hutsetik hasiko lanean, ordea. Lehenik, etxe hutsei dagokienez, zerrenda egina dago, eta inkesta bat prest dago herritarroi banatzeko, legorretarren behar eta

interesak zein diren jakiteko. Bigarrenik, trafikoari dagokionez ere diagnosi bat eginda dago, eta hortik abiatuta lan egingo du taldeak, betiere oinezkoa erdigunean jarrita. Eta, hirugarrenik, herri bideei dagokienez, herrian oinez egiteko ibilbideak garbitu eta markatzea da helburua, seinaleak jartzea. Taldetxo bat hasia da bideak mapan kokatzen.

Herritar batzuk, beraz, badabilta lanean talde honetan, baina, jakina, ateak zabalik daude parte hartu nahi duten guztientzat. Gainera, ez dago zertan hiru gaietan parte hartu beharrik, interesen arabera antola daiteke lana.

A finales del 2016 se decidió unificar los dos grupos debido a que muchos de los temas que se trabajaban y la gente que trabajaba en ambos grupos eran los mismos. El objetivo: ser más eficaces.

Tres son los ejes de trabajo para el 2017:

- *Viviendas vacías: La lista está terminada y pronto se repartirá una encuesta preguntando por las necesidades e intereses de los legorretarras en torno a este tema.*
- *Tráfico: El grupo de trabajo tendrá en cuenta la diagnosis y en base a ella se trabajará, siempre teniendo como punto de partida al peatón.*
- *Caminos locales: El objetivo es limpiar y marcar los recorridos locales que se puedan hacer a pie.*



2016 Argazkitan



Hurrengo Geltokia Londresen



Santa Ageda



Antzokiaren inaugurazioa



Taloak



Asfaltatze lanak



Martxoak 8



Legoreggae



Elekun





Sagardo Eguna



Dantzari txiki



Korpus



Oholtza



Gure Esku Dago



UEMA



Langileak



Partaidetza

ESKATU 'ON LINE' UDALAREN AZPIEGITURAK ETA MATERIALA



UDALETXERA JOAN BEHAR IZAN
GABE EGIN AHAL IZANGO DUZU
ERRESERBA, ERRAZ-ERRAZ.

Sartu www.legorreta.eus atarian, eta
egin klik 'Azpiegiturak eta materiala
erreserbatu on line' atalean.



Eskola



Barazki festa



Ostegunetako zinea



Docomomo

2016 Argazkitan



Udalekuak



Peatonalizazioa

Musika Eskola



Jubilatuena astea



LEGORRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

- Arista ondutegia:
asteleneretik ostiralera, 09:00 - 13:00
- Telefona / faxa:
943 08 52 90 / 943 08 49 00
- Helbide elektronikoa:
gizarte@legorreta.eus
- Non:
Udaletxeko gizarte zerbitzuen bulegoan
- Webgunea:
www.legorreta.eus/ongizatea



Argiteria



Hondakinak



Bizi denda



Etxeko Ura



Hip Hip Urri



Pikuak kalera



Ipuin kontalaria

2016 Argazkian



Kultur Astea



2016 Argazkitan



Gazte festak



Izaro



Gaztaina festa



Olentzero



San Silvestre



Erdibana



Txerri festa



Elkartasun azoka

KONPOSTA IXTEKO ETXOLA



Badira urte batzuk etxean lurrik ez duten herritarrei konposta egiteko aukera eman ziela udalak. Etxola bat jarri zen lehenik, eta, emaitza onak ikusita, beste bi jarri ziren. Horietan, izena emana duten herritarrek etxeko organikoa botatzten dute, eta materia lehor batekin nahasten dute bertan –lehorkina esaten zaio-. Hala, betetakoan, lehortzen uzten da.

Orain, auzokonposta etxola horietan egindako lanari bukaera emateko etxola handi bat jarri da herri baratzeak dauden eremuan. Bertan, konposta lortu ahal izango da, ongarrri gisara erabili ahal izateko herritar orok.

Auzokonpostan botatzen den organiko hori, lehorkinarekin nahastuta, organiko zakarra da. Hori, beraz, lehortutakoan, xehatu egingo da, makina batekin, eta etxolako eremu batean jarriko da. Hiru eremu ditu etxolak: lehenengoan, konposta egongo da. Bigarrenean, organikoarekin nahasteko adar, belar eta bestelakoak egongo dira, xehatzeko. Eta hirugarrenean jarriko da materia hori xehatuta, organikoarekin nahasteko erabilgarri.

Beraz, herrian dauden hiru etxolen osagarri izango da orain egindako etxola handi hau.

La caseta para finalizar con el ciclo del compost

Hace algunos años, el Ayuntamiento ofreció la opción de hacer compost en una caseta que se adecuó para ello; viendo los resultados, se pusieron otras dos. Los legorretarras que se apuntaron, echan ahí el orgánico.

Actualmente, para terminar con el trabajo llevado a cabo hasta ahora, se ha colocado una caseta grande al lado de las huertas locales. En ella, se podrá realizar el compost, para luego utilizarlo como abono.



ONTZIRATU ZAITEZ!

Harategi, arrandegi eta, oro har, dendetan erosketa bakoitzeko bilgarri asko erabiltzen dira (plastikoa, papera...). Plastikoa eta papera ez xahutzeko, erosketetan oihalezko poltsak erabiltzeko ohitura zabaldu zen, eta arrandegian ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko ohitura ere bai.

Hain justu, orain hiruzpalau urte jarri zen martxan Ontziratatu Zaitez kanpaina Legorretan, Mikel arrandegian hain zuzen. Eta, emaitza oso onak eman zituela ikusita, kanpaina hori arrandegian indartu eta harategira eta dendetara zabalduko da orain. Egitasmo honek hiru helburu ditu:

- **Erosketak erosoagoak** izango dira, erosleek behin etxera iritsita ontzia zuzenean hozkailuan sartzeko aukera izango dutelako, modu garbi batean gainera.
- **Saltokientzako kostu murrizketa** handia izango da, ez baitute hainbeste paper eta plastikozko poltsa erabili behar izango.
- **Hondakin gutxiago** ekoitziko denez, ingurumenarentzat positiboa izango denez, herritar guztientzat izango da ona.

Gaur egun, tuperraren kanpaina **Gi-**

puzkoako 40 udalerritan dago martxan, eta, horretarako, **70.000 ontzi berrerabilgarri banatu dira** Ontziratatu zaitez! lelopean. Kanpainaren ondorioz, batez beste **27.000 erosketa** egiten dira hilero ontzi berrerabilgarria erabiliz. Horrek hilean **150 kilo paper** eta **16.000 plastikozko poltsa aurrezte**a ekarri du.

Oraingoan, Legorretan, Mikel arrandegiak eta Bizi, Coviran eta Amatriain dendek parte hartuko dute. Ontziak salgai jarriko dira dendetan, 50 zentimoren truke, baina kontuan izan etxe-ko edozein ontzik balio duela. Urtarril amaieran jarriko da martxan, eta hileroko zozketak izango dira erabiltzaileen artean.

Hace tres o cuatro años se puso en marcha la campaña Ontziratatu Zaitez!, en la pescadería Mikel. Y, viendo los buenos resultados que ha tenido, se ampliará esta campaña tanto a la carnicería como a las tiendas de Legorreta.

Objetivos de la campaña:

- **Comodidad:** Los compradores podrán meter directamente el recipiente en la nevera, de una manera muy higiénica, además.
- **Reducción de gastos** para los comercios: ya que no gastarán tanto papel ni bolsas de plástico.
- **Mejorar el medioambiente:** Se producirán menos residuos, por lo que esto afectará favorablemente al medioambiente y será positivo para todos. En concreto, se esperan ahorrar **16.000 bolsas de plástico y 150 kilos de papel** al mes en los 40 municipios donde se llevará a cabo la campaña.

Esta vez, en Legorreta, se unen a la campaña: Mikel arrandegia y las tiendas Bizi, Coviran y Amatriain. Los envases se venderán por 50 centimos; y, la campaña comenzará a finales de enero. Además, se realizarán sorteos mensuales entre los usuarios!



MARTXOAREN 12an IZANGO DA GALDEKETA

Madrilgo Kongresuko ministroen kontseiluak baimena emanda, jarri dugu hondakinen sistemari buruzko galdeketa eguna: martxoaren 12an izango da, 09:00etatik 20:00etara, udaletxean. Aurrez botoa emateko aukera izango da, udal idazkaritzan, ezartzeko dauden egun eta orduetan.

Baiezkoak irabazten badu, aldatu egingo da hondakinak biltzeko sistema. Otsailean zehar banatuko da informazio gehiago.

Hauxe izango da galdera:

Legorretako Udala osatzen duten udal taldeek hondakinak gaika biltzeko sistema adostu dute, eta helburu hau finkatu: %72tik hasita, ahal den gehien sailkatzea -onar-tezinak izango dira %70etik beherako emaitzak-.

Gaikako bilketa edukiontzi hauen bidez egingo da:

- Beira.
- Ontzi arinak.
- Papera.
- Organikoa: txiparekin, 24 orduz irekita.
- Errefusa: txiparekin, astean behin irekita.
- Pixoihalak: txiparekin, behar dutenentzat.

Galdera:

Ados zaude udaleko bi alderdiek hondakinak biltzeko adostutako sistemarekin?

Erantzuna:

- ☐ BAI
☐ EZ



Después de recibir el consentimiento del Congreso de Ministros de Madrid, el referéndum sobre la gestión de residuos ya tiene fecha: Será el 12 de marzo, de 09:00 a 20:00, en el ayuntamiento.

Si prevalece el sí, se cambiará el sistema actual de recogida de residuos. Esta será la pregunta:

Los grupos municipales que componen el Ayuntamiento de Legorreta han acordado un sistema de recogida de residuos. Así pues, se pondrá en marcha un sistema de recogida selectiva mediante los siguientes contenedores: Vidrio, envases pequeños, papel, orgánico (con chip; abierto 24 h.), resto (con chip; abierto una vez a la semana), pañales (con chip; para quienes los necesiten).

Pregunta: ¿Estás de acuerdo con lo acordado los dos grupos sobre el sistema de recogida de residuos?

- ☐ SÍ
☐ NO

ERREZETA

Arantxa taberna – Mikaela Moraru

Karrillerak

Denbora: Bi ordu eta erdi

Zailtasuna: Ertaina

Plater mota: Bigarrena



OSAGIAK

- Kilo bat karrillera
- Lau tipula
- Hiru azenario
- Bost baratxuri ale
- Bi tomate
- Bi porru
- Edalontzi bat ardo beltza

NOLA PRESTATU:

Berdurak ondo-ondo erregosi, eta, bitartean, haragiari buelta pare bat eman zartaginean, pixka bat 'markatu'. Berdura egin ondoren, salda bota, eta 5-10 minutuz eduki egosten. Berdura prest dagoenean, dena ondo xehatu, eta iragazkitik pasa. Haragia saltsa horrekin jarri egosten, bigundu arte.

On egin!

AGENDA

OTSAILA

- 4 Santa Ageda bezpera:
Talo Festa**
Iluntzean / Frontoian
Elekun abesbatza kantari
Iluntzean / Herrian

- 21 Odol-ematea**
10:00-12:30 / 17:00-20:30 - Antzokian

- 22 Ipuinaren Ordua**
18:00 / liburutegian

MARTXOA

- 4 Inauteriak**

- 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna**

- 12 Hondakin sistemaren
inguruko galdeketa**
09:00 - 20:00 / Udaletxean

- 19 Patxi Ezkiagaren liburu aurkezpena
eta omenaldia**
11:00 - 12:00 / Zehazteko

- 25 LegoReggae**

- 29 Ipuinaren Ordua**
18:00 / liburutegian



Urtea bukatzeko, ohitura zaharrei eutsiz, San Silvestre krosa izan zen herrian. Irudian, 1987an eta 1988an jaioetako herritar batzuk ageri dira: Naiara Olano, Urtzi Larrea, Unai Garin, Xiker Esnal eta Eneko Garmendia. Noizkoa ote da argazkia?